

Barak pozik heldu da Israelera, baina asko ditu han aurka

Golango Gaina Siriari itzultzearen aurkako protesta egin zen Tel Aviven

Erredakzioa / Donostia

Ehud Barak Israelgo lehen ministroa atzo iritsi zen Israelera, joan den astebete osoa Siriako Atzerri ministro Farouk al-Xararekin hizketan eman eta gero. Pozik jaitsi zen hegazkinetik. Baina Israelen

bertan duen giroa ez du aldekoa. Golango Gaina Siriari itzultzearen aurkako iritziak ugaritu egin dira. Astelehenean 150.000tik gora pertsonak protesta egin zuten Tel Aviven. Goi ordokia itzuliz gero, kargua utziko dutela iragarri zuten atzo bi ministrok.

EEBB-ETATIK itzuli ondoren egoera zailarekin topo egin zuen Israelen Ehud Barakek. Golango Gainetik erretiratzeko Siriarekin egin negoziazioek haserrea piztu dute koalizioko Gobernuan nahiz oposizioan. Herritarrek ere ez diete Golango Gaina siriarreri itzuli nahi.

Iragan aste osoan Siriako Atzerri ministro Farouk al-Xarak eta Israelgo lehen ministro Ehud Barak el-karrizketak izan zituzten EEBBetako Shepherdstown herrian. Mahai gainean honako lau gaiak izan zituzten: Golango Gaina, Israelek 1967an Sei Eguneko Gerran hartua, siriarreri itzultzea; ur baliabideak; segurtasuna; eta harremanak normaltzea. Ez zuten akordioarik lortu, baina berriro ekingo diete elkarrizketei hilaren 19an.

Gai korapilatsuena Golango Gainarena da, non 17.000 judutar kolono bizi diren. Lurralde hori siriarreri ez itzultzeko aldarrikatzeko, 150.000tik gora pertsona bildu ziren manifestazioan

atzo Tel Aviven, Golanen bizi diren kolono israeldarren mugimenduak deiturik.

Protesta ekitaldian oposizio eta Gobernuko koalizioko hogeita hamarren bat diputatuk parte hartu zuten. Barakek adierazi zuenez, «ziur nago israeldar gehienak Siriarekin bake akordioaren alde azalduko liratekeela erreferendum batean».

Dena dela, inkestek ez diote Baraki arrazoia ematen. Aitzitik, Siriari goi ordokia ematearen kontra azaldu dira inkesta gehienak, Gobernuko koalizioa barne.

Israelgo Atzerri ministro David Levyk esan zuen astelehenean Israelek ez duela oraindik mugen inguruko gairik eztabaidatu Siriarekin. Oposizioa, baina, ziur dago dena hitzartuta dagoela.

Bi ministrok kargua utziko dutela mehatxatu dute

Israel Ba' Aliya inmigrante errusiaren alderdiko Natan Sharansky Barne ministroa eta Mafdal alderdi naziona-

lista erlijiosoko Isaac Levy Etxebizitza alorreko ministroek iragarri zuten Gobernu utzi egingo dutela, baldin eta Israelek Golango Gaina Siriari itzultzen badio, «israeldarren interesen kontra» doala uste baitute.

Levyk esan zuenez, «nire alderdiaren ordezkari bezala, Gobernuaren erabaki batzuk ezin ditut onartu».



Ehud Barak eta bere emaztea, EEBBetan hegazkina hartu zuten ulean.

Elian Gonzalez «trofeo» gisa erabiltzen ari direla esan du Kubak

■ Haur kubatar baltseroa EEBBetan geratuko da oraingo, epaile batek hala erabakita

Efe / Yakarta

KUBAKO herritarrek oso haserre azaldu dira EEBBetako familia epaitegi bateko juez batek herenegun erabakitakoarekin. Rosa Rodriguez epaileak ebatzi zuenez, Elian Gonzalez haur kubatar baltseroa EEBBetan geratuko da oraingo, aitona-osaba batekin. Hala ere, martxoaren 6rako deitu zituen aitona-osaba eta aita. Aitona-osaba azalduko dela ziurra da, baina baliteke aita ez agertzea. Kuban dago eta maiz esan du ez dela EEBBetara joango. Epaitegian agertzen ez bada,

ordea, Elianen kustodia gal dezakeela ohartarazi zuen epaileak.

Hori jakin ondoren, milaka kubatar bildu ziren herenegun EEBBen Habanako Interesen Saileko bulegoaren atarian. Auzian EEBBetako buruzagi kubatarrek duten jarrera gaitzetsi zuten gogor. Horiek «faxistak, lapurrak, terroristak eta bahitzaileak» direla esan zuen Kubako ikasleen lider Hasan Perezek, Habanan egindako protesta ekitaldian. Elian Gonzalez 6 urteko haurra «trofeo bat» bailitzan erabiltzea leporatu zien gainera.

HIRIA ARTEKO FAXAPELKINIA

2000ko urtarrilak 15, larunbata. Anoetako igorilekua

DONOSTIA VI. NAZIO IGERIKETA

natación easo

Egunkaria